

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU  
ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK

HAU ZIURTATZEN DU:

2024ko abenduaren 18ko ohiko bileran (4/24 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

**7. gaia.**- Gizarte-hezitzaile plaza bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deitutako enplegu publikoa egonkortzeko prozesuko epaimahai kalifikatzailea (*GUFEn Gobernu Batzordearen erabakia, 2022ko abenduaren 19koa; BAO, 248. zk., 2022ko abenduaren 30ekoa*); kontrataziorako proposamena.

«**Lehenengoa.**- Eranskinean zerrendatutako pertsona GUFeko lan-kontratu mugagabeko langile finko gisa kontratatzea, gizarte-hezitzaile plazaren deialdiaren esparruan, aipatutako egonkortze-prozesuaren bidez.

**Bigarrena.**- Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari ahalmena ematea erabaki hau betearazteko beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzan, zehazki, hautatutako pertsona benetan lanean has dadin, deialdiaren oinarrietan aurreikusitakoaren arabera.

**Hirugarrena.**- Erabaki hau GUFEn webgunean argitaratzeko eta interesdunari jakinarazpena egiteko agindua ematea. Espedientea interesdunen eskura geratzen da, jakinarazten den ebazpenaren arrazoiaren berri izan dezaten.

**Laugarrena.**- Akordio hau GUFEn ordezkaritza duten sindikatuei eta Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuko buruari helaraztea».

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA 2024-12-20  
GUFEn GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA  
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS





**I. ERANSKINA: ENPLEGU PUBLIKOA EGONKORTZEKO PROZESUAREN BIDEZ GIZARTE HEZITZAILE PLAZA BAT BETETZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA**

TXANDA IREKIAN KONTRATATZEKO PROPOSATUTAKO HAUTAGAIA. DERRIGORREZKO  
3. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

POSTUA	NAN		1. ABIZENA	2. ABIZENA	IZENA
1	***2109*	E	AYERDI	SOLE	ESTIBALIZ

**PROPOSAMEN OSAGARRIA**

POSTUA	NAN		1. ABIZENA	2. ABIZENA	IZENA
2	***1098*	A	LOPEZ DE AGUILETA	VALDERRAMA	AMAIA

